EUZKEL--ATALA

LEZO

"ZUBIGAR"-EN OROIPENEZ

Bizkai'ko idazle anaikonak "Zubigar" zaren sendiari laguntza egiteko agertu o leyaltasun bizia, zuen izpar maitakori, gaur nator kizute atsegin izango zaien laguntza ori, ongiria egokiena batez e, lezaikon iritxia ematera.

Ezin ukatu "Zubigar" langille osoa eta anetan joskera apañako, olerki goxo, m, xamur, ibain jausten dan ur garbia ño garbiago, bere idazki pozgarriak tzen zituela. Zugaitz emaikona, ugali o euskel zelayean eman zezaken zugaia bezelakoxea zan Maitagarri'en egille "Zubigar" gure lagun maitea.

¿Zer egin orduan aren gomutaz, esango o galdetuko dezute, irakurle askok. Nola n izenarentzat, aren sendi, eta euskentzat, gomutagarri oberik, aldizkari ta rrangietan zabalduta dauzkau bere lan rtak batuta idazti eder bat irari, ondo saldu, eta idazti orekin bildutzen dau dia, alargun-semetxoai ematea baño?

Onela mintzaten dira, Pasaizabal'en "El eblo Vasco"-k duan izparkari Uria, ta gia"-n "Luzear" jaunak, gure lagunrekin ta "Euskeltzaleak" deritzaion kunak lagunda ta, oso erex, egin leikeda "Zubigar"-en olerkia goxo ta xarrakin ornitutako idaztia.

Gertu daude "Zubigar"-en senideak, lan k batu ta irar lana egiteko gertu dauai eskutara emateko. "Euskeltzaleak" euskaldun guztiok gaztigatu bear degu auxe egitera. Oroitu ta jarrai "Zubir"-en gatik.

R *BAT.—*

Datorren igandean "Zubigar" zanaren o alde, jaupa nagusia egitekoak giñan e jaioterrian, bera urguztatuko txado ortako erritar guztiok txindia ema baño guk baño ariño ankak (oñak) ditu bat edo batek, egun ortako jaupa egin digute. Garaiz iragarriko degu pa ori noiz egingo dau eta ordurako n ego ndonostiko "Atarrene" bere tzale taldeakin, eta laguntza pixka bat ngo zenuketen, txindiakin ez baño, ariakin edo... dana dala eman eure ia Euzkadi onen bitartez, eta beste tako abertzaliai ere berdin.

ANASTAXIO.

OTZANDIYO

AN ETORRI

Bilbo'tik Langarika'tar Yon, Albizu'tar birel, Unzalu'tar Irune ta Landa'tar tor.

Gazteiz'dik Langarika'tar Satur da rtie, ta Elorza'tar Gorka yauna ta rtie.

GAIXORIK

Aspaldi onetan makal samar aurkitzen Arrese'tar Kasimira.

UGUTZA

Eleiz-nouziyan ugutzau zan Basaguren' tar Todor'en umetxo bat Basaguren'tar lespora ta Zabala'tar Anparo Irakasri bikaiña izan ziran itama pontakuak. Zorijonak.

ELEIZKIZUNA

Igaro dau eguen arratsaldeko seiterditan asi zan Ama Nekatsuaren bederatzi ena, oste andiyagaz.

SUAK YANTZI

Endore yaunaren aginduz auzo lanian tu dabez lau milla txopo ta Amerika'ko itz. ¡Ori, ori, Erremiki!

NOZ-EDO-NOZ

Etxe'ko diru guztiyak sakelian artuta bat ibilte ein neban igaro diran egune basterrik-baster kukua entzuteko, as; ba aita yaunak esateban (goyan be lenengoz txori-ori entzuten danian saa bero ba'dago, urte guztira'ko bero n oi dala; baña, ibiliyak ibili ein arren, un barik biurtu nintzan etxera. Igaro n barikuan urten nintzan, barriro, Olentz eta Konde-baso, Itza ta Illuntxo katu nebazan, eta bapez. Bide-bazterreo giñarra-moltso baten gañian yarri ta kortxo bat erre ondoren, Amezolarana abiyau nintzan eta Signore Dango, Sir Txotxiko (Txomin) eta Mesie Kumer'egaz po ein neban. Laurok txokortxo bana etan gengozala, ¡ku-ku! ¡ku-ku! ¡ku! geure onduan kuku ori atsegiñez en genduan. Orduan Sir Txotxikok esan n: ¡—Mutillek sakelian daukazuezan ok atara, zenbatu daiguzan!

Eta bakoitxak eukana atara eban. Mesie mer'ek lauerleko bat eta iru txakur; Sir Txotxiko'k zazpi txiki; Signore Dank, bapez; tabakorri ta ogi-ondarrak ño ez eukan; eta nik, Eredia'tar Polok baño gitxiago baña Signore Dango'k ño geiyago. Diru dunok poz-pozik saken dirua genduala entzun gendualako kua. Agur ein geuntson alkarri, ta arek eta'ra yuan ziran etxe-errentak batzen a ni Otzandiyora bazkaltzen. ¡Noz-edo-!

BILBO'KO URRETXINDORRA'RI

Ana Marin'i emon zeuntzazuzan gorantiya'kaz Otzandiyo'ko karra-marru belrentzat ¡eztozu iskanbilla txarra ipiñi ri onetan! Yente guztiya dabil nor ete r karra-marru beltzoi. Batzuk "Apoita" da; bestiak "Lepo" dala ta abar...

Arren ba, eskatzen dautzut, nor dan n daizula karra-marru ori.

SERRITAR BAT'I

Oingo aldiyan ¡bai zuk ni goraldu bia! ¡Eskerrik asko, gixona! Baña, nderarte be ezin itxaron Turin'dik tzun zenduan izpar ori emoteko? Orrenste urduri? Bai ba, maitasuna olantxe ; eztauka eperik. ¡Eskerrik-asko gixoa eskerrik-asko!

GATZAGAKO IDAZLARIYA

¿NUN ZAGOZ?

Mariñen egun batzuk igarota Yoseba nen egunian yuan zan lengo tokira karate'tar Estepane; eta egun orretan teizdik etorri zan, barriro biurtuteko rrese'tar Miren neskatilla gaztia. Euren diyak agurtuten etorri zirala diñue, ba susmua dot, esku-artian garrantzi anko gauzaren bat darabilela. Gatzaga'ko dariya eztakixu ezer? Ba, oiñ-atz oni zen yarraituten badeutzazu erbi bi ereko dozuz. ¡Ziur!

NOR EZKONTZEN DA?

Neskatilla lerden, naiku polita, bere llerako polita ta garbi-ga birik yanta agertzen da. Neska lagun bigaz ibiln da. Neurrizkua ibilten be: bere oindak zenbatuten doiala esan leike. Errin dagonik etxerik andiyenen onduan bizi a bidiabitarte. Aren aitak baño geiyago sten dabenik eztago erriyan beste ana alargun bat baño. ¿Nor da? Eta nor? Datorren igandian esango dot.

GURASTUTEN

Neskatoen irakaslia amabi ikasle taria bitan artuta txaunburu yauna lagun la yuan ziran igaro dau astelenian Bilbo'ra. Begoña'n yaupia entzun eta Parkian bazkaldu eben. Arratsaldian, uri guztiya ikusi ondoren gaubeko zortziretako biurtu ziran osasun bakiaz. Ederto. Olantxe saritu biar dira ikasle oneta zoliyak. Zoriyonak.

BEKOLETA.

Jesukristoren Nekaldia

Gorostiaga'tar Eulogi'k euskeratua

0,25 laurleko

EUZKADI'ko Banakolara eskatu

Juventud Antoniana edo Juventud Es.....ta?

Zarauztar irakurle maite: Irugarren aldiz natorkizu gure erri maiteko Andoni'tar Gaztedi'ko bazkunatzaz idazten. Batek baño geyagok esango zenduten, noski. ¡No es para tanto...!

Euskal Erria'n bear dan bezelako bazkun euskaltzalea ikusi nai nuke Andonitar Gaztedia. Kristau siñismena zabaltzeko zuzenena uste detalako.

Bazkun euskaltzalea ikusiko ba'nuke; aldezle sutsua izango nitzake.

✣ ✣ ✣

Zorionez oraindik Zarautz euskaldun utsa da. Esku bateko beatzarekin kontatu leizke euskeraz ez dakitenak...

Doipuru edo Aita Santuak esana dago erriari irakatsi bear zayola bularrean ikasitako izkuntzan.

Doipuruak diyoana oroituaz nola ulertu genezake orrenbesteko erdelkutsua egon bear dubela erri euskaldun eta praile euskaldun Artezkari dagon bazkun batean?

✣ ✣ ✣

Irakurle Zarauztarra: Jakin egizu Andonitar bazkunak eta prailien konbentuak ez daukatela zer ikusirik batak bestearekin; egia da Andonitar Gaztedi'ko Artezkaria prailea dala eta jakiña, agintariak begiratu bear diyote praile orrek Artezkaritza ondo betetzen duben.

Baten batzuek esango dute (zerbaitegatik diot) "Zarauztar Bat"-ek gorroto bizia daukala Aita Epelde'rentzat.

✣ ✣ ✣

Asko daude ezagutze nez dutenak, maitasuna eta gorrotua. Astakeri aundi bat esan detala-ta, ikusten nago gorrotoz irakurtzen dituzten irakurleen arpegiak, baño bereala agertuko dizut diyotena.

Maitaleak nekez, atsekabetuko du bere maitea, egiyazko maitasuna ba-da beintzat. Ikusten ba'du maitea, oker bidetik, galbidetik dabilela, bere izakera ez dala bear bezelakoa, esango diyo. Etzaude ondo, ez da ori zuk eraman bear dezun bidea, oker zaude. Ez uste gorrotua daukalako esango diyonik, maitasun bizia daukalako baño. ¡Maitasun egiazkoaren agerkairik biziena izango litzake!

Ner ere onelako zerbait gertatzen zait Andonitar bazkunarekin. Onen izakera etzait atsegin eta ezin det maite... oker bidetik nabaitzen det, poz pozik, biotz biotzez maiteko nuke, nik naidetan izakera ba'leuka.

✣ ✣ ✣

"Qui odit fratem suum homicida est".

Gorrotuak, ezin-ikusiak, norkeriak, euskaldunak beti galdu gaitu: gorrotua oso griña zitala da; baño, kristauak ez ezik, anaiak, erri batekoak, etxe batekoak, bear bada banatzen dituenean, orduan askoz eta askoz okerragoa da, bere ondoren kalteak elkar artean gorrotatzen diranentzat bakarrik ez dituelako, bai ta ere erri osora zabaltzen diralako.

✣ ✣ ✣

Irakurri ditut erritar idazleak argitaldu dituzuten idazkiak, bai ta ere artu ditut nere lagun zar baten idazkiak erriko gorabera guziyak edestuaz eta argiro ikusten det, asko eta asko daudela Zarautz'en Aita Epelde'ren Andonitarren Artezkaritza ondo artzen ez dutenak. Oker ari dala uste dutenak.

Aita Epelde agurgarria: Asketsi ausartu ba'naiz izparringian idazten Andonitar Gaztedi'ko utsegiteak...

Jakin beza biotz maitasunez idatziak dirala. Ezagutzen det biotz samindurik geratuko zala nere idazkiak irakurrita, baño, Jainkoa'k eman zigun euskera eta biotz biotzez maite degu. Bai ta ere uste degu kristau siñismenaren euskarririk bikañena dala ta beartuak gaudela euskal-odola daramagunok aldezten. Biotzez aitortzen diot nere idazkiyaren ziyoa ez dala besterik izan.

Berriro ere orain arte bezela jarraitzen ba'du, ez diot agintzen ixilik egongo naizenik... Nik ere ba'det biotz maitale bat eta nere maitea euskal izakeran ikusi nai det.

Aita agurgarria: Utzi dezagun gertatu dan guzia alde batera, oraindik garaya da beste bide bat artzeko eta asketsi onu au ematen ausartzen ba'naiz.

¡Zarautz Gaxoa! Mutikoa nitzanean euskal-usaidun ikusten indutan sinismen bizidun ikusten indutan. Erdel gogoa sartzen ari dan lez kristau siñismena argaltzen nabaitzen diat...

Egin dezagun Andonitar Gaztedia Euskaldun Fededun! Egin dezagun Zarautz guzia ¡Euskaldun Fededun! Errikide maiteak. Gaizki esanak barkatu eta ondo esanak goguan artu.

ZARAUZTAR BAT.

GETXO - NEGURI

ILLAREN LENENGO BARIKUA

Igaro dan bariku onetan Josu Biotzaren omenez ainbat ostek geure Jauna artu dau Deun Iñaki txadonan. Arratsaldeko txadonkizuna be oso ederto egin zan, notintza aundia bertara eldurik.

ESAKUN ZARRAK

Benetan dagoz euskeldunen artian esakun berezi batzuk, eta benetan zarrak.

"Otxolua" atal onetako idazle argiak lengo baten egite eban dei bat, esakunok dakiguzanak zabalduten alegindUteko. Ainbat dagoz egia, baña orretarako, euskeldun jatorrakaz itz egin bear da egunaro, ta eureri entzunagaz ikasten dira ainbat eta ainbat. Neuk orain gomutaten dot bat, "Txorierri" aldetik askotxu erabilten dana. Auxe da:

An be txakurrak ortozik.—Au esaten da euren zoriagaz pozik egon ez edo, ta obeto bixiteko ustian euren erritik beste batera alde egiten dabenak gaitik.

—Badakizu, Kepa Bilbo'ra doyala, ol baten lan egiten?

—Egia ezta izango!

—Bai, diño emen baserrian lan nekatsuak egin ta gitxi irabazten dala, ta orregaitik, Bilbo'ra dua, an geyago irabazi ta dotoreago biziko ei-da ta...

—Eztakit ba, baña an be, txakurrak ortozik dabiz, emen lez.

Aor esakun benetan zar bat, eta ikaskizun aundia daukona.

Bilbo ta uri aundietara datoz gure baserritar gaxoak, euren zoriona aurkituko dabelakuan, eta geyenatan, eztabe euren aldakuntziagaz, kalte asko baño ateraten. Batetik, neketsuago bixi diralako urian, ta bestetik, askatasun geyagogaz, lan eginta be, bixi diralako euren baserrian.

Gero, euskotarrak, ori da, euren odoleko anayak, geyenatan eureri baño gurago izaten dabe. atzerritik datozanari euren lantegietan lana emon. Ori ikusten da. geure-geuriak dirala esan lein ol jauben artian, ta geuriak eztiranan artian oso geyago.

Amen ba, ze polito esakun zar au, "An be txakurrak ortozik".

Au irakurten dozuen baserritar, eta beste irakurle maitiak, goguan euki esakun au, ba ikaskizun aundi dna da berau.

Onelango beste asko badagoz geure ele maitian, ta astiro astiro (J. I.) "Otxolua"-ri lagunduagaz bere lanian, argitaratuten alegindUko naz.

Izkuntzearen gogua dira esakun zarrak, eta idazlagun maitiak onelango esakun zarren bat dakizuenak, argitaratu egizue. ba mesede on bat egingo dautsazue gure asabakandik yatorkun ele maite oneri.

TROKATIKO.

ARRASATE (MONDRAGON)

EUSKEL IZENA

Agiriano'tar Ander'ek laugarren mutil eder bat dauko ta Joseba euskel izena jarri dotzo. Zorionak.

"TOLOSAR BATERI"

Artu det zure idazkia eta ez uste izan "Eusko langille Batza" erri orrekin aztuta dagonik. Zure itaun edo galderari gaur itz bat bakarrik, "Sozialismo" eta "Unión General de Trabajadores" españarrak, geure eusko aberrientzat anei (milla) aldiz txarrauak dira, solo, ta baratzarentzat, larrapota minte (plaga de langosta) baño eta uskurtzarentzat zer esanik ez. ¡Ekin bildur barik!

BEDERATZIURRENA

Eleiz nagusian egiten jako Ama Nekatsuari.

EUSKALTZALIAK

Badabiltz izenak batzen eta mordo polita batu ere egin dute, bañan ondiño "Neu ere euskalduna nauk" esaten duten askok ezdute emon euren izenik. ¡Egipenak lagun egipenak!

Itzak bakarrik indarge dira.
Egipenak ziñaldari,
Nor zelako dan bere egipenak
Erakusten dabe argi.
Euskaldun batek Euskal-Errian
Beti erderaz badegi,
Alperrik esan "soy vascongado"
Erdeldun utsa da ori.
(*Enbeita'tar Kepa'k*)

UDALA-MENDI.

AZKOITI

EUSKEL IZENA

Igandian txadon nagusian ugutzatu zuten, gure lagun abertzale zintzo Zubizarreta'tar Erraimunda eta bere emazte Elorza'tar Imanole'ren semetxoa izena ezarririk "Alesander". Artu ezazute nere zorion agurrak sutsuena egizko euskotar guraso onak. Orrela irakatsi biar zaiete euskeldun guztieri, gere elientzat naitasuna. Zer esango duteneri jaramonik egin gabe, danen aurretik geuria lenbizi.

ANTXINTXIKETA

Juan dan igandian jokatu zuten kale galtzaran asita Azkateko gañera "Kuategi" basetxeko eta "Uzin Agarreko" mutil gaztiak, "Agarretxok" irabazi zuan errez, 25 miñitu eta 44 segunduan igorik bidetzabal aldapetsu ori, oraindik egin dan azkarrena "Deniz" Belgatarraren urren, bejondeikela motel 18 urteko gazte trebia.

NASKALDIA

Burgete'tik etorrita bere uria ikertzen emen izan degu abertzale zintzo Lapazaran'tar Maurixi.

Loyola'ko etxe deunara juan dira gogo jardunetara abertzale gazte Elorza'tar Koldobika eta Romarate'tar Erroman "Kuku" idazlia. Gure Jaunak eman daizutela laguntza bere tza ondo entzuteko eta zeon gogoak garbitu eta zintzo jarraitzeko ludi ontan bere aginduak gordeiaz.

POZTEN GERA

Gure lagun abertzale onak diran Aranbarri'tar Julen eta Alberdi'tar Joseba Miren gaixorik egon ondoren osatzen gogor ari dirala ikustian. Lenbailen gure Jaunak indartu zaiteztela opa dizuet.

EGI-ALDE.

MAÑARI

YUAN-ETORRI

—Galdakoa'tik etorri zan Uranga tar Yon.

—Ubida'ra yuan zan Uriarte'tar Perderika.

—Billafranka'tik etorri zan Sakramentu Deuna'ren Simeon Aita.

—Santurtze'ra yuan zan Zubinaz'tar Yone.

—Otzandiyo'ra yuan zan Etxanobe'tar Miren.

—Santurtze'tik etorri ziran Bartzena'tar Agapita, Abauntza'tar Narkixe, Kapanaga'tar Bitor eta Danele.

—Lenguan agurtau gendun emen Garamendi'tar Kandida euzkaltzale zintzua.

—Berriz'era yuan zan aldi bat igaroten Garitonandia'tar Pelikene.

EZKONTZA

Laster ezkontzen dira Iturriya'ko Aldekoa'tar Peli mutilla ta Landaluze'ko Gorospe'tar Andoliñe neskatillia.

Aurreztik zoriyonak.

OTURUNTZA

Eguaztenian Kapanag'tar Patxik bere yaiyoteguna zala-ta, senide ta aizkidieri bazkari eder bat emonaz ospatu eban eguna. ¡Ederto, Patxi! Eta datorren urtian be, bardiñ egitia opa dautsoagu.

ZIZAK

Eguraldi eder oneekaz asi dira zizak urtetan. Naikue ugeri dagoz. ¡Eta ze gozuak! Durangoarren batzuk laster dira etorri emengo mendiyetara; baña gauza andirik eztabe aurkituko, bertakuak bizkor ibilten diralako.

IGALIAK

Makatz, okaran eta igali enparauak lorarik asko agiri dabe; ta keixak ikusgarri dagoz edurre lez zuri-zuri. Orain aldiyari itxarotia baño eztago agiña erabilteko.

MENDIZALIAK

Lengo igandian mendizale asko igaro zan mendiyetara. Illuntziyan, abestiyak abestuten alai igaro zirian.

KUKUA

Igaro zan igandian entzun gendun, aurten lenengoz, txori maitagarri onen abesti polita Zugatzaren kerizpe ederrian ¡ze gozatsu entzuten zan!

MAÑARIKO.

ZEANURI

ILEN LENENGO BARIKUEN

Lagun asko izan da barikuan illaren lenengoa dalako Jaun artzean etorri dana goiko basetxeetatik be Deun Ixidor elexara. Baita erriko ikastola guztietako umiak izan daude Jaunartzea, oitura daben lez.

Astegureneko itzaldiak egiten.

Aurten entzun dogunetik Uriarte'tar Luken M. B. da erri onetako semea yatorku.

"Jaungoiko-Zale" da "Zeruko Argia" artu doguz. Liburu euskerazko batzuk doguz emen salgei. Ara. Domingo Abaren bizitza, Santuen Bizitza Laburrak. Goiizpiak. Grimm anayen ipuñak, Santa Cruz apaizan bizitza, Jesukristoren Nekaustea, Bier Donibanera ta abar.

GEXOAK

Eguraldi otz beruak edo gexo asko ipiñi ditu alberi edo pulmunie ume artean. Baita nagosi artean be. Egunotan oso txarto egon direnak. Etxatxo auzuneko mutil nagosie Pedro Ellauri auzuneko Olivares Justa neskatillea.

Ainbat lasterren osatzea opa dautsegu danoi.

IRUARRIZAGA'TAR MAREN MADRID'EN

Aspaldi onetan zeure idazkiari begira, orko barriak yakiteko. Baita zeuk dakizuzanak be bardin idazkortzik ezpalego or, urrutizkiñez itz egin emendik bidalduteko.

ETXEAK BARRIZTUTEN

Emen Plazan ba diardue zeregin onetan da oso ederto geratzen dira aurok. Apurka danak emen olango barritute bat egiteagaz oso etxura ederra artuko leuke Ibarguengo etze-mordoak.

NASKALDIJA

Gazteiz'tik etorrita emen aurkitzen dira Etxezarraga da Etxebarria abade ikasleak. Gazteiz'tik Eibar erantzean emen izanda Manterola'tar Gabirel jauparia.

GAZTEIZ'TIK ABEREA UGARI

An egiten dan ferian erosite txori errirantza idi mordo galantak igaroten dira aspaldi onetan emendik bidezaletik bera. Erri onetan baño idi geyago bearda non non.

IL AU LUGINTZARAKO

Lugintzarako asko ezan gura dau ille da berau Udabarriko ereiteak aprillan egiten dira lusagar (patata), udarbi, erremolatxa ta abar artorako lurra gertau da erain be bai. Abere lekuak atondu aziak gertau. Artzañak, gaztae biguna egin. Ortxoak saldu, barutietan auron artaldeak erabili. Ollotegiek kare ezneagaz garbitu, Yoyaketak egin, bedar txarrak pillatuaz, alpalpa karetu ta txori sastu ta abar.

PELOTA TOKIAN

Orain garizuma ondoren partidu edo yokaldi onak gertau leiz. Otzandian da Galdakao da onantzako errietan yokolari edo pelotari ona dagoz eskuzkoak beintzat. Udalak sari batzuk ipiñi ezkeitiño uste dot pozik etorriko litzakezala yokatuten igande arratsaldeetan txapeltza edo kanpeonatoa iragarri ezkeitiño.

Igandeko oste andi izaten da emen Arratieko erri guztietatik etorrita. Igandean be patriquen bat ipiñi dala entzun dot.

BASERRITAR BAT.

ALTZA

"ZUBIGAR" ZANAREN OROIMENEZ

Beti ezagun baten eriotz berria entzutean nere biotza samindu eta xamurtzen da. Ordea naigabea senti duanean biotzak, ez da bere samintasuna berdiña izaten beti.

Ezin samindu mala berean bere sendi edo lagun kutun baten berri tamalgarriak eta beste edozeiñ ezagun baten ez-bearrak. Eta lagunaz gañera euskaldun jator baten eriotza bada? Zenbaterañokoa izango da naigabe au? Era ontan atsekabetua dago bada nere biotza une abetan. Garbizu'tar Jon'en eriotzak atsekabetua.

Ni baño idazle trebeagoak, zorionez badauzka aberri maite onek "Zubigar" bere eriotz ondorean beardan mallan jatzeko, bañan nere biotzak ere nolabait azaldu nai du lagun biotzeko enen eroitzak iriki dion zauria.

✣ ✣ ✣

Irakurle maiteak: "Zubigar", gure mendi, zelai eta ibai, gure euskalerri apaiñ onen bazter zoragarriak abestutzeko jaio zan abeslaria il da.

Eta il da, beñere baño kementsuago, beñere baño gogotsuo arkitzen zanian, gure biotzak bere olerki estitzuakin asetzeko.

Ez dago irakurle maiteak, zuen begietan jarri bearrik berak euskal erriari zion maitetasuna. Amaika bider zabaldu dituzute EUZKADI eta "Argia"-ren orriak bere olerki ederrarekin apainduak.

✣ ✣ ✣

Bañan euskaldun jator bazan bere izaeran, baita ere euskaldun batei daokion bezela betetzen zituan guraso bezela zituan egin bearrak ere.

Emaztea bost umetxo zoragarrirekin ludi onetan utzi-ditu. Euskera eta sendia ziran bere poz-bide guzia. Berak Kristau sinismen sendo eta zakona artu bazuan bere aurrerokoen gandik, ziur nago, batere galerik gabe itsatsi duala gaztetxoen aingeruzko biotzetan aurrerokoen erakutsiak.

Beraz euskaldun jatorra, guraso arduratsua eta bioen oiñ arritzat, Kristau sinismen sendoa. ¡A zer ixpillu ederra euskaldum askorentzat!

Zer bait bere oroigarri egiteko, edo zer itz eginda. Nere iritziz aren lagunak egin bear deguna-da beraren olerkiak bildu eta liburu batean argitaratu.

Au izango litzake Aberriak zor-dion eskerrik ordaingarriena.

Jaunak Berekin izan dezala betiraunde guzian. ¡Otoitz bana beraren gogo aldez. (Goyan bego).

ALTZA-GAIÑ.

ZUMARRAGA'TIK

ANTZERKI JAIA

Jun dan jaian eman zuten Koldobikatarrak antzerki-jai eder bat. Beti lez ziaro beteta agertu zan aretoa.

Gau ostatuba argitaldu zuten, beraz oingua Euskeraz gendun.

Zabaleta'tar Julen, Zenekorta'tar Martin eta Arrizabalaga'k bikaiñ egin zuten lana txalo ugariak irabaziaz eta bereri gogoz jarraituaz bertan zeuden danak. Zorionzten ditugu iru antzerkilari Euskotar auek lerro auetatik,

---

La próxima
Página Agrícola

se publicará el día

10 de abril

y en ella publicaremos artículos de gran interés para nuestros labradores y para todo aficionado a la agricultura.

Lector:

Difunde entre tus amigos estas páginas de interés material. Ellas pueden ser la ocasión para hacer brotar en sus almas el afecto a todas nuestras cosas, aun las más elevadas.

Bitartian jo zuten gure txistulariak eresi zail ederra. Txistulariok agertu ziran ozoki, beren irugarren txistu ta guzi. Aspalditik bageñikun nola gertatzen ai ziran jo-aldi eder bat emateko, eta ala eman zuten bertan, bai txalo ugariak jaiki ere beren eresitxuak bukatzian...! Eta oraiñ Udala'ri

¿Ezin al lezake txistulari txorta au ondo osatu? Au da, ezin al lezake irugarren txistu ori, edo silbote ori jarri Zumarragako txistularietan, beste uririk geienak dauken bezela...

Gogo aundia dagila ala ikusteko zer esanik, ba antzerki aretoan artu zituzten txaluak ondo erakutsi zuten; uste degu bada Udalak ikusiko duala nola jarri lezakian txistulari aldra bikaña, eta gure zorionik bikañenak txistularieri aiñ egoki zaiatzen diralako guri ordu eder batzuk igarotzeko, eta jarrai aurrera ere.

MENDARO'RA

Bai jauna, jungo gera eta berari askatasuna ekarri ere bai. Gertu bada Larrañaga'tar Peli Bergaretxe anaiak, Elgezua'tar Karla eta abar Eibar'tik, Aberri eta lagunak Mutrikutik eta beste abertzale zintzo batzuk. Bertan egin biar degu jaialdi aundi bat Kilimon erreka ertzian. Gure adiskide maite eta Euskel-idazle Iztarpe gertu dago arkume aundi bat edo bi erretzeko, baña orretarako jun nai dezuenok neri adierazi ze jai izango dan onena egun orretarako, bitartian egingo da jaialdia, bertan izango diran gauzak garrantzi aundikoak izango dira. Bazkalondoan alanbre gañekoak ere bai. Mendarorako gertu lagunak.

Emen agertu ditugu Iriondo'tar Pantzeska eta Endeiza ¿nunguak...? Mendarokuak uste det.

ALTZETA.

MUTRIKU

ERREGU BAT UDALARI

Mutrikuko uriak lendabiziko sarrera Bizkaitik zuen eleiza atzian bera, gaur bide ori izan lezake ia ia galdua dagoala. Badaude biztanliak, notin asko ta asko ibiltzel dira atzera ta aurrera baña gure Udalak ez dauka aintzakotzat, len ere esan det badaude etxiak, bizi dirade alderdi orretan baña kalerik ez daukagu korkaba baizik. Bai jauna bai, karkaba, zergaitik bide ori zikinkeriz betia dagolako, iñongo etxan iltzen bada kato, arratoi edo beste egaztirik, illunabarrian a nbotatzen dituelako, beste edozer zikinkeri an ustutzen dituelako. Oraindikan ez da iru egun ustu zuela otzara bat zikiñez betia, begiratu utsean nazkagarria... Zaindu ta "denunziatu" esango dezue; baña, ¿nork zaindu gabaz ustutzen badute? ta gañera zertako daudez erri zaiñak? Ai irakurle Paitxia beti usetara. Argiakin ere gaizki gaude len bat bakarrik genduan erregu bat egiñaz udalari lortu genduan beste bi argi ta argi ipintzalliak jarri zizkigun bat bakarrik, orrek ere obe egingo luke Rene ta Ganborenari utzi alde batera ta egingo balituke biar diran eran gauzak.

Bidia edo kalia oso lotsagarria dago ta sinistu dedin guziak jarriko ditut bi gertaera oraindik denbora gutxi gertatuak eta nere begiakin ikusitakuak: ara:

Gau illuna zegon eta banijua kalera apal onduan lagun artean beta pizka bat igarotzeko asmuan, nere aurretik beste emakume bat, bide txarra dagoan lez bera begira alako batian ¡Jesus! entzuten det, begiratu det aurrera ta emakumea luze luze erorita, zela erori zan? bada burdia zegon luze luze kalian biar ez dau eran.

Beste bein, andiko bidia itxita zegon eta baserritar denak bide zarretik zijuazen kalera. Alako batian nere etxetik entzuten det iso... iso..., begiratzen det leiotik eta neska gazte bat negarrez tuntusari begira, bada lurrian esnia ustuta zeukan nola?

Astua egurrari katiatu ta askatu eziñik asten da zintzilipurdika ta botatzen du otzare ta zauzkan gura guztiak. Ezaguna bai bidia ona zegoala, neska gaixua negarrez, esne gabe kalera...

Udalari erregutzen diok piska bat begiratzeko alde onetara ta nik uste det nere esana entzuna izango dala, onela aurretik ezkontzen zaituztet.

ATARDE.

Goikoetxea'ren gomutaz

"Schola Cantorum Santa Cecilia" iñoiz be ezdago atzera begira eta Goikoetxearen omenez "Sociedad Filarmonika"-ren antzoki politean abestuteko eratu dau Goikoetxea eres-eguna" deitu geinkiona.

Goikoetxea eleiz ereslari bikaña izan zan, bikañenetakua eta abesti eder asko egiñ ebazan.

Lan asko eta biar biarrekuak, onuratsua berak egiñ ebana eleiz-eresiagaz.

Galdurik lez edo baztartuta eguan eresi eleizakua eta Palestrina'k eta Victoria'k lez Goikoetxea'ren bultzakadeak aurreratu dau asko; aren jorraketak loraz jantzi dau eta eskerrak areiri eta beroni, gaur egunian eleiz-eresia garaille dabill ludiko bazter guztietan.

Zubizarreta jauna "Schola Cantorum Santa Cecilia"-ko artezkari bikañak iñoiz be ez dauz izten bere abesbatzaren abetsaldietan Victoria, Palestrina eta Goikoetxea'ren abesti ederrak. Beti dabil eurak buruan daukazala mamintsuak dira izan be orrein abeslan garratzitsuak eta. Batez bere Goikoetxea'en akaz dago edo dabil aidian.

Igandian abestuko dabez Goikoetxearen lanik ederrenetatik amar aukeratuta eta eurak onetxek dira.

Lenengo Atala

"Ave Maria", Gizonen lau abotsetara eta lagunduaz "violin"-ak.

"A media noche". Lau abots nastuetara eta laguntasunaz.

"Adoro te devote" (l'go. aldiz). Lau abotsetara eta laguntasunaz.

"A Cristo Rey" (l'go. aldiz). Danak batera eta bakarrikako ereserkija.

"Ama Zorioneko" (2'go aldiz). Lau abots nastuetara eta bakarrikakoa lagunduaz.

Bigarren atala

"Christus Faetus". Bost abots nastuetara.

"Miserere mei Deus". Iru, lau eta sei abotsetara "erriak" abestuaz "salmoak" gergoritarrez.

"Jerusalen". Lau abots nastuetara.

Irugarren atala

"O sacrum convivium". Iru abots nastuetara eta laguntasunaz.

"Te Deum" (lenengo aldiz). Lau abots nastuetara eta bigarren abestaldiagaz eta laguntasunaz.

✣ ✣ ✣

Illa bi ta erdian abesti eder oneik ikasten gogor ibilli dira egunero egunero, eta ez dago esan bearrik igandean garaipen andia eukiko dabena.

Neuk ori gura deutset Goikoetxea'ren abesti ederrei, Zubizarreta'ri eta emen inguruetako abesbatz onena da "Schola Cantorum Santa Cecilia"-ri.

AINTZANE.

OARRA

Gautegiz Arteaga'tik oraiñ urrengoan norbaitek esan ebanak, ango yaun begiragarri bat mindu egin omen dau. Nor ete zan idazle a? "Beuzko" ez beintzat, iduritua alan artu ba da bere.

O.

Notas obreras

LA DURACION DEL TRABAJO

Procurando acomodarse al horario de Washington, Italia ha invitado a sus organismos sindicales obreros a formular sus deseos para establecer una jornada fija de trabajo.

La Confederación de Sindicatos Fascistas de la industria ha contestado al poco tiempo.

EXPLICACIONES

En su exposición al Gobierno esa Confederación prevé la aplicación de ocho horas por día y cuarenta y ocho por semana para determinadas industrias, incluyendo la textil, la mecánica y la metalúrgica.

Para otros admite una prolongación necesaria de trabajo por exigencias comerciales. Estima indispensable hacer una revisión completa y acomodar cada provincia a un horario correspondiente a su producción industrial.

EN CUBA

El proyecto de ley de la jornada de ocho horas ha sido aprobado por el Parlamento. Falta hace días que lo ratifique el Senado.

Las organizaciones obreras han constituído un Comité encargado de solicitar el apoyo de personalidades políticas "pro ocho horas" y han publicado un manifiesto a tal efecto defendiendo esta reivindicación obrera, sancionada por el Tratado de Versalles.

HORAS SUPLEMENTARIAS

En Polonia, una ley expresa ya aprobada aumenta en un 50 por ciento los jornales de las horas suplementarias.

Se va reglamentando cada vez con más perfección el trabajo en los distintos gremios y oficios.

LAS PANADERIAS BULGARAS

Se prohibe el trabajo nocturno. Comprende un período de siete horas consecutivas. Se ha implantado un descanso semanal e ininterrumpido de 36 horas.

En los trabajos nocturnos son varias las naciones centrales y orientales europeas que se dedican a la desaparición de abusos e inconvenientes.

Por lo general, se tiende a abolir el trabajo nocturno, siempre y cuando que no sea absolutamente necesario.

El cabello es una planta

Si queremos tener buenas plantas es preciso cuidarlas. Con mayor motivo el cabello requiere cuidados especiales para mantenerlo sano y abundante.

El Capilar Americano es un regenerador del cuero cabelludo. Pídase en perfumerías y droguerías de España y América.

CAPILAR AMERICANO

Precio Pesetas 6'50

Perfumería ICART Barcelona

URALITA

Gran Vía, 5, 1.º—Teléfono 11079.

CEMENTO PORTLAND

"ZIURRENA, S. A."

(El MAS SEGURO)

Propiedad de la Sdad. marca "Cangrejo".

FUEROS, 2. :-: TELEFONO 12-23.

Turbinas y molinos

movidos por agua o engranajes y correas. Talleres mecánicos y fundición E. Bilbao. Santa Teresa, 8. Teléfono, 6-611. Bilbao.

Rodamientos F*AG

Las letras F*AG en los rodamientos son como el A B C en la cartilla. Ambas cosas las saben hasta los niños.

Rodamientos F*AG - Suprema calidad

P. VARGAS - Gran Vía, 40 - Bilbao